



Xapo

2023ko maiatza - 22. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



Hi haiz hi,
Xapo!



2

zenbaki honetan



aurkibidea

• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua

• **Irudiak:**
Goizuetako eskola; Alaitz Eskudero; Txondorgile taldea; Esteban Arotzena; Itsaso Lujanbio.

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

LG NA 742-2016



- **3**..... Aurkezpena
- **4-5**..... Ezagutu zortzi galderatan... Roxa
- **6**..... Suitza
- **7-9**..... Jubilotekako txokotik, kolore eta formak airera!
- **10-14**..... Txondorra
- **14-15**..... XALTO ikastetxeko ikasleak, kazetari eta idazle: Landareak
- **16-17**..... XALTO ikastetxeko ikasleak, kazetari eta idazle: Goizuetako txokoak
- **18-22**..... XALTO ikastetxeko ikasleak, kazetari eta idazle: Skolae proiektua: gure herriko emakume erreferenteak
- **23-24**..... XALTO ikastetxeko ikasleak, kazetari eta idazle: Jasokundearen eliza, goizuetarron ondare oparoaren adigarri
- **25**..... Goizuetako toki izenak, esku-eskura
- **26-27**..... Bertso txokoa
- **28**..... Atzera begira: 1991
- **29**..... Inkesta: Zure hitz kuttuna
- **30-31**..... Komertzioetan euskaraz, zergatik ez?
- **32**..... Zure txanda





Hi haiz hi, Xapo!

Pilota partida irabazten denean bezala, hogeita bigarrenera iritsi da XAPO aldizkaria. Horregatik izenburu hori aldizkariak. Horregatik eta, irakurtzen hastean ikusiko duzuen bezala, zenbaki honetan hika lantzeko eta berreskuratzeko Goizuetan egiten ari den ahaleginari tokia eman diogulako. Izan ere, Goizuetan badabil hika, eta bereziki noka, berpiztu eta suspertu nahi duen taldea, eta lan horren isla ekarri nahi izan dugu aldizkarira.

Horri buruzkoa da, hain zuzen ere, XAPOren XXII. zenbakiaren lehen-dabiziko erreportajea, baina bada gehiago, noski. Goizuetako toki-ize-

nak bilatzeko eta ezagutzeko erreminta baten berri ematen du artikulu batek, esate baterako, eta Goizuetako Jubilotekako erabiltzaileen lanen berri hurrengoak.

Goizuetako irudi ederrak erakusteko ohitura dugu XAPOn, eta oraingoan ere hala da. Zenbaki honetarako Txondorraren inguruko hainbat argazki ekarri ditugu, prozesua bera nolakoa den azaltzen dutenak, besteak beste.

Atal horren ondoren, Goizuetako Xalto eskolako ikasleek egindako lan mardula dator. Lehen Hezkuntzakoek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoek egindako lanak jaso ditugu.

Kazetari eta idazle lanean jarri zaizkigu, eta emaitza polita da oso.

Aldizkariko gainerako orrialdeetan, gurean klasiko bihurtu diren atal batzuk: *Bidaia* (Suitza, oraingoan), *Bertso txokoa*, eta *Atzera begira* atalak. Eta jarraian herritarrei egindako bigaldetegi: batean norberaren hitz kuttunari buruzko galdera-erantzunak bildu ditugu, eta bestean komertzioetan lanean aritzen diren lagun batzuei euskararen erabileraz galdetu diegu. Azkenik, ohi bezala, herriko beste bi laguni egindako elkarrizketa laburra.

Hortxe duzu, horrenbestez, gure lanaren emaitza. Zuen gustukoa izanen delakoan, goza ezazue, hasi eta buka.





Ezagutu zortzi galderatan... Roxa

GOIZUTAKO HIKA txuleta:

ADITZ TRINKO IBILINAK

Naiz > nuk / nun
Za > (y) aiz
Da > duk / dun
Ga > gittuk / gittun
Dia > ttuk / ttun

(In)
Dut > dit / diñat
Zo > duk / dun
Do > dik / din
Du > diu / diñau
Dute > ditek / diten
Tto > ttik / ttin
Ttuzte > ttiztek / ttizten

Zit > zeak / zean
Zizo > zik / zin
Zio > zek / zin
Ziu > ziuk / ziun
Zite > zetek / zeten

Nitzan > (ni)ñu(e)n / -nan
Ziñan > (y)itzen / (y)itzenan
Zen > yu(e)n / -nan
Giñan > giñozeon / giñozeonan
Zian > ttuen / ttuenan

Nin > nin / niñan
Ziñun > yun / yunen
Zun > zin / ziñan
Giñun > ginin / giniñan
Zuten > ziteken / zitenen
Zittun > zittin / zittiñan
Zittuzten > zittizten / zittiztenan

Diazo > diak / dian
Dizo > dik / din
Diuzu > diuk / diun
Dizte > ditek / diten

Dizut > dit / diñat
Dizo > dik / din
Dizu > diu / diñau
Dit > zeot / zeonat

Ezagutzen ez yotenantzat, zein da Roxa?

Goizutako gazte bat nun ta hika ikastera animatu niñunen, izane amona Oxepik beti hika hitzeitten zeanan ta nik eniñenen enteintzen. Berak esan zeanan hika saio batzuk antolatu zittuztela Goizutan ta parte hartzera pentsatu niñenen.

Amona, errespetu falta iduitzen al zin nik hiri hika ittera?



Ez mattea! Nahio diñat hola ittera, galtzea biño!



GOIZUTAKO HIKA Txuleta:

ADITZ TRINKO IBILINAK

EUKI

Daukit > zaukit / zaukiñat
 Daukizo > daukik / daukin
 Daukio > zaukik / zaukin
 Daukiu > zaukiu / zaukiñau
 Daukite > zaukitek / zaukiten

JON

Noa > nek / nen
 Zoz > (y)oa
 Dio > zek / zen
 Goz > gezek / gezen
 Diozte > zeztek / zezten

IBILI

Nabila > nabilak / nabilan
 Zabilta > abila
 Dabila > zabilak / zabilan
 Gabilta > gabiltzak / gabiltzan
 Dabilta > zabiltzak / zabiltzan

EON

No > neok / neon
 Zaude > aok / yon
 Do > zeok / zeon
 Gaude > gaudek / gauden
 Daude > zaudek / zauden

JAKIN

(Ba...) (Ba...)
 Dakit > zakit / zakiñat
 Dakizo > dakik / dakin
 Dakio > zakik / zakin
 Dakiu > zakiu / zakiñau
 Dakite > zakitek / zakiten

ERAMAN

Damakit > zamakit / zamakiñat
 Damakizo > damakik / damakin
 Damakio > zamakik / zamakin
 Damakiu > zamakiu / zamakiñau
 Damakite > zamakitek / zamakiten

Nolatan sortu zen Goizutan hikal-dia bultzatzeko ideia?

Euskaraldia lantzen ai ziala, konturatu ttuenen Goizutan euskararen erabilera nahiko ziurtatua dola. Ordun pentsatu ziñetenen zeoze berritzailea itterra ta herri hontan euskarak hutsunek non zittiñenen pentsatzen hasita, konturatu ttuenen “hika” ez zela asko erabilia...

Biño hika sumatzen da jende pixkot, ez?

Bai, “toka” forma (gizonezkori hika mintzatzeko forma) nahiko erabilia dun, biño “noka”n (emakumezkori hika mintzatzeko forman) hutsune handia zeon.

Ordun hikan erabileran generok eragina al do?

Bai, emakumezkori modu batera itten zeteneu, “noka” izen din ta gizonezkori “toka”. Gizonezkok maizo erabiltzen ditzen elkarren arten biño emakumezkok gutxio sumatzen ttun. Ordun noka forma ez tun generazioz generazio hainbeste transmititu ta ezjakintasuna zeon.

Ze ekimen jarri dia martxan herrin hikaldia aurrera eramateko?

Lenbizi saio informatibo bat deitu ziñetenen, jenden ezagutzan ta interesen berri izateko. Jenden gaiakiko jarrrera ona ikusita, antolatzailek honi leku bat emattek merezi zula ikusi zitenen. Karnabalatane mozorron arten saltsa patu zitenen, ta erabiltzeko saiakera saritu, zato bat emanetz.

Hike ikasi omen dun hika, ez?

Bai, lotsak galduta lemizi konfiantzakoko pertsonakin ibiltzen hasi niñunen.

Hemendik aurrera nerekin hika ez itteko aitzakiit eztuk!

Arrazoaia, txuleta honekin aixo moldatuko nun!



Konturatu nun itxe bakotxen aditz formak aldaketa batzuk izaten ttuztela biño bakotzak bere ohikonakin aurrea itterra dun kontua.

Eta amonakin ere hika itten al dun?

Nere kasun bai. Gure amonak hala esaten din, nahio dula galtzen ikustera biño berari hika itterra. Iritzi difeentetako jendea zeon gai honen ingururen biño bueno, zemitteri molestean bazeon, eskertuko niñeken lasai esatera ta

hola hurrengoko bazekiñat nika nola zuzendu bakotxari.


Eta aurrera begira, honi lotutako asmon berririk bai al dun?

Hasteko, Goizutako Hika Txuleta ateko ditzen: aditz forma erabilinan berri izateko eta hasierako lotsak galtzera bultzatzeko eta hitz eitten hasteko. Gerorako ere battizten gauza gehio burun ta... entetuko gittun bai, mingañak nola dantzaten hasi!

Suitza



Atzean Tobleroneko mendia.



Chateau de Chillon.

Norbaitek marraztu izan balitu bezalako paisaiak, laku urdinak, gazteluak, elurutako menditzarrak, jostailuzkoak diruditen egurrezko etxeak, txokolatea, gazta, ixiltasuna... eta batez ere lasaitasuna.

Udaberriko oporretan astebete pasa zuten Portoloko Alaitz eta Ibanek Suitzan, eta halaxe deskribatu digute bertan ikusitakoa. Deskuiduan norbait gehiago jakiteko gogoz gelditu bada, Suitza bertatik ezagutzeko gonbita egin digute anai-arrebek. Ea zer dioten!

BISITATU BEHARREKOAK:

Chillongo gaztelua (Château de Chillon): Lemon lakuaren ertzean dagoen Erdi Aroko gaztelua da. Merezi du barruko aldea bisitatzea.

Gruyeres: Gruyere gaztaren eta fondue tipikoaren herria. Arrunt herri politta.

Friburgo:

Zermatt: Fondoan Tobleroneko* mendia (Matterhorn Suitzan, Cervino Italian) duen herri kuriosoa. Bertara trenez bakarrik iritsi daiteke.

Interlaken: Suitzaren erdialdean laqueuz eta Alpe ikusgarriez gozatzeko toki paregabea. Neguan eskiatzeko pis-

tak eta udan mendi ibilaldiak egiteko abiapuntu gisa erabiltzen da. Lautenbrunnen herria ederra da bisitatzeko..

Berna: Suitzako hiriburua bisitatu gabe utzi ezin den hiria da. Txukuna, polita eta garbia. Zytgloggeturm, ordulari astronomikoan ordu aldaketa ikustea benetan ikusgarria da.

Luzerna: Bere egurrezko zubia da bertako ezaugarri nagusia. 5 dorre eder lotzen dituen harresia ere ederra da.

**Toblerone txokolate tipikoak produkzioaren zati bat Suitzatik kanpora eramango du. Beraz, ez denez %100 Suitzan egina izango, laster debekatua izango du Suitzako sinboloa den Matterhon mendiaren irudia erabiltzen jarraitzea.*

ZER JAN:

Gazta-fonduea. Fonduea — frantsezko “fondre” (urtzea) hitzetik eratorria — hainbat modutan eta gazta desberdinekin presta daiteke.

Röstia patata-tortilla modukoa da, eta plater nagusi edo goarnizio gisa erabiltzen da.

Txokolatea ere oso tipikoa da Suitzan. Alde guztietan topa daiteke mota guztietako txokolatea.

Kontuan izan beharrekoak:

- Suitzako moneta ofiziala franko suitzarra da (CHF). Franko batek 1,03 € balio du.
- Suitzako bizimodua oso garestia da orokorrean. Kontuan izan hango soldatak ere oso altuak direla. Gutxieneko soldata ia 4.000 € koa da!
- Suitzan 4 hizkuntza desberdin hitz egiten dira: alemana, frantsesa, italiara, eta erromantxera. Segun eta ze partetan zauden, hizkuntza bat edo beste hitz egiten da.
- Suitzan roaminga ez da doakoa, beraz, mugikorra wifirik gabe erabili nahi baduzu, prepagoko SIM txartela erosi beharko duzu.
- Kotxez bidaiatu nahi dutenentzat: Suitzan ez dago bidesaririk, baina herrialdean zehar bidaiatzeko viñeta (pegatina bat) behar da. 40 franko suitzar balio du eta urte guztirako balio du.
- Trenez bidaiatzea oso eroso da. Azkeneko herriko mendi puntaraino tren bat iritsiko da seguru-erik.
- Swiss Travel Pass Suitzan zehar bidaiatzeko pase turistikoa da, eta 3, 4, 8 edo 15 eguneko tren, autobus eta itsasontzi bidaia mugagabeak eskaintzen dizkizu.

Jubilotekako txokotik, kolore eta formak airera!

Bat zutik aritzen omen da mandalak koloreztatzen, gainerako etxeko lanak egin bitartean, esertzeko betarik ere hartu gabe. Beste bat, berriz, eseri orduko margoak esku artean hartuta horretara jartzen da “hau bai, hau da nere biziua” esanez.

Hirugarrenak “nik honeri ze in behar dit?” bere bu-ruari galdetuz etxera joan eta hurrengo astean txukun-txukun margotua ekartzen du bere mandala, besteen lana ikusitakoan berea harrotasunez eta pozik agertuz. Eta haren ondoan beste bat ikus daiteke, kolore bat bestearen atzetik hartzen, margotzen hastean batere pentsatu beharrik ez balu bezala... hartan berehala pentsamendutan sartuko balitz bezala...

Bosgarrena, otordua prestatzeko tenorea ailegatzten zaionean (saioa bukatu aurretik), mandala zuri-zuria galtzarbean hartuta, “adios adios” esanez joaten da. Horrenbeste atzera-aurrera eta horrenbeste zirriki-zarraka eginagatik, mandala margotuarekin etortzen da beti jubilotekara hurrengo astean...

Azkenak, bi eramaten ditu etxera! Bi mandala! Lehen mahai azpitik pasatzen zion berea, mandalak ikusi ere egin nahi ez zituen batek! Orain, ohitura berarekin jarraitzen dute, oso beste-lako moduan egiten badute ere tratua. Konpainian aritzen da, margotze lanetan, bi mandalen jabea, bilobaren bisita jasotzen duenean! Eta niri poza ematen dit bien artean sortu duten ohitura horrek!

Jubilotekara dozena erdi lagun etortzen dira Goizuetan, astearte goizetan, jubilatuen elkartera. Giro izugarri gozoan aritzen gara, garai bateko herriko ohiturak eta istorioak kontatuz, gorputza pixka bat mugituz, eskulanak eginez, burua bizkor izateko ariketak eginez, kantatuz, jostatuz... Astean goiz desberdin bat pasatzeko aukera ematen du jubilotekak eta halaxe izaten da niretzat ere, aldiro ikasten baitut zerbait berria bertara etortzen direnekin!

Eskerrak eman besterik ezin egin ba hitz hauen bitartez. Eta erakutsi, mandala hauei esker nora bidaiatu dudan nik. Zu nora eramango zaituzten? Hori zuk bakarrik dakizu...

Mandala hauek eramán naute...



Leku epelean loratu-tako bihotzetara eta bizitzak bertan zintzilikatutako momentuei alde ederra ikus-tera...

erreportajea



Zelai baten erdian etzan eta tximeleten etengabeko mugimendua begi itxiekkin ikustera, nire txikitasunean, munduaren handiaz jabetzera...

Elur zuritan ernatzeko indarra izan duten lore eta belar bizietara, haiekin lore sorta dotore eta bildua osatzera...





Ontzaren begi zorrotzetatik barrena sartu eta mundua haren begiradatik ulertu nahi izatera, haren jakintzaz zipriztintzera...

Eguzkiaren printzak ilean jasotzeko hegatzera ausartu den neskatzaoren lasaitasunera, lurrarekin duen lotura galduko ez badu ere...

Basoaren erdian ikuzezina izango litzatekeen ontto eta hostozko herrixkara, udazkeneko argi gorrixkarekin, ate txikien bestaldean dagoena jakin nahi izatera...

Eta zu? Nora eraman zaituzte jubitotekako Goizuetako erabiltzaileek margotutako mandalek?



Txondorra

Egur-ikatz egiteko ikazkinek eraikitzen zuten egur meta da txondorra. Izan ere, garai batean, ikatza oso baliabide garrantzitsua zen. Gehien erabiltzen zen egurra pagoa, haritza eta gaztaina zen. Txondor plazan bildutako egur metaren gainean orbela paratzen da, eta lurra ondoren, dena estaltzeko.

Sua piztu eta egun batzuen buruan ikatz bihurtzen da, prozesu horretan egosi ondoren. Gaur egun noizbehinka egiten dute txondorra Euskal Herriko hainbat lekutan, lehengo lanbide hura nolakoa zen erakusteko.

Goizuetan azkenekoz 2011n osatu zen txondorgile kuadrilla Andoni Etxenikeren aginduetara.



1 Txondor plaza.



3 Egur meta eta erdian alkatea.



4 Hostoa eta lurra.



2 Sarea eta erdian kaiola.



5 Hostoa eta lurra.



6 Azken ikutuak.



7 Txondorra piztuta.



8 Ikatza ateratzen.



12

iruditan



9 Ikatz pilak.



10 Ikatz zakuak.



11 Ikatza.





Bai al zenekien...
 Ane Tabernak "Ni ez naiz zomorroa" izeneko ipuina argitaratu berri duela eta bertan, besteak beste, ikazkinen bizitzari buruz hitz egiten dela? Ekainaren 3an herrian bertan erosteko aukera egongo da.



XALTO ikastetxeko ikasleak, kazetari eta idazle

Goizuetako Xalto ikastetxeko ikasleak Xapo aldizkariko kolaboratzaile finak ditugu, eta XXII. zenbaki honetan ere haiek egindako lanak jaso ditugu.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek loreak eta landareak biltzen eta aztertzen egin duten lana azaldu digute.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek Goizuetako txoko eder eta interesgarri batzuen berri eman digute: Goi-ko iturri, Ibero, Labaderoa eta Presa.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek, berriz, eta Skolae programarekin lotuta, herriko emakume erreferente batzuei elkarrizketa interesgarriak egin dizkiete.

DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek, azkenik, Goizuetako elizaren deskribaketa xehe bat ekarri digute, herriko eraikin esanguratsuenetako bat baita.

Eskerrik asko Xalto ikastetxeari, ikasle eta irakasle guztiei, XAPOri egindako ekarpenagatik!

Landareak

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. MAILAKO IKASLEAK

L.H. 1. eta 2. mailako ikasleok, udaberria hastean gure inguruan loreak eta zuhaitzetan hostoak jaiotzen hasi zirela ohartuta, gai hau jorratzeari ekin genion.

1.- OBSERBAZIOA

Eguraldia lagun, herrian barrena paseotxo bat eman genuen eta loreak jasotzeko aprobe txatu.



Goizuetako txokoak

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAKO IKASLEAK

GOIKO ITURRI

Goiko iturri Goizuetan kokatuta dago. Goiko iturri Txino auzoan dago, herriko antenara joaten den bidean hain zuzen ere. Ur fresko-freskoa ateratzen da iturritik.

Goiko iturrira ur freskoa edatera joan daiteke, gaztainak biltzera eta jolastera ere joan daiteke.

Bertan arbolak daude, iturria dago, erreka txiki bat pasatzen da eta mahai batzuk daude. Igarotzeko bi zubi txiki daude, bide bat dago mendira igotzeko eta zubira jaisteko eskailera batzuk ere badaude.



IBERO

Goizuetatik Leitzarako bidean dago, herritik 3 kilometrora gehienez.

Oinez, bizikletaz, motoz eta autoz joan daiteke. Bainu fresko bat hartu eta lagunekin edo familiarekin ongi pasatzeko joaten gara. Oso txoko polita da, putzu handia dauka eta harkaitz bat dauka urera salto egiteko. Hara igotzeko soka bat dauka. Hamaka ur txikietan jarri dezakezu hankak uretan sartzeko eta eguzkia hartzeko zelai berde bat dauka.





LABADEROA

Zubi handiaren ondoan dago. 1909an egin zuten. Garai batean emakumeak arropa garbitzera joaten ziren. Gaur egun jolastera, ondo pasatzera, lagunekin denbora pasatzera, freskuran egotera joaten gara. Harrizkoa da, sabaia egurrezkoa da, oso polita da, lekua txikia da, eserlekuak barrenean daude eta hiru iturri ditu. Turistak etortzen direnean hor argazkiak eta horrelako gauzak egiten dituzte. Batzuetan argazkiak, koadroak eta margotutako gauzen erakusketak egoten dira.

PRESA

Urumearen zati bati deitzen zaio Presa. Eskolaren alboan dago, Goizuetan kokatzen da.

Udaran bero handia egiten duenean bertako jendea Presara joaten da eguzkia hartzera, bainatzera... Presa bainuak hartzeko, denbora pasatzeko, bazkariak egiteko... oso ongi dago. Presan mahaiaik daude jateko.

Presan gauza asko egin daitezke, adibidez: Barbakoak, otor-duak, merendolak, jolasak...



Skolae proiektua: gure herriko emakume erreferenteak

LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILAKO IKASLEAK

Amaia Lujanbio Goizueta

Jaiotze data: 1982-01-16

Kolore bat: Orlegia
Jaki bat: amonaren kroketak
Zenbaki bat: 2a
Animalia bat: behia
Uda ala negua: uda

Zerbait soberan al dago munduan? Bai, ezberdintasunak
Eta zerbait faltan? Umiltasuna
Zerbaitek izutzen al zaitu? Marrazoak
Zerk lasaitzen zaitu? Eguzkitan egoteak
Definitu munduaren egoera hitz batean: krisia

1. Nolakoa zinen txikitan?

Oso bixia, azkarra eta kanpoan bihurria nintzen.

2. Zertan zinen ona?

Lasterka asko gustatzen zitzaidan eta ona nintzen baita ikasketetan ere.

3. Zer ikasi nahi zenuen?

Egia esan niri dena gustatzen zitzaidan, baina gehiena gustatzen zitzaizkidanak natura eta matematika ziren. Betitik jakin nuen ikertzailea edo irakaslea izango nintzela.

4. Zer afizio zenituen?

Korrika ibiltzea maite nuen, musika ere asko gustatzen zitzaidan eta trikitia.

5. Lehen zientzia gustatzen zitzaizun?

Bai, asko gustatzen zitzaidan txiki-txikitatik. Goizuetan natura dugunez, horrek eraman ninduen gure gorputza nolakoa den jakinaraztera.

6. Nolatan hasi zinen zientzia munduan, zerk erakarri zintuen?

Lehenik ikerlaria izateko biologia ikasi nuen unibertsitatean eta ondoren tesia egin nuen laborategi batean. Hortaz aparte, izaki bizidunak nola funtzionatzen duten jakiteak erakarri ninduen. Gustatzen zaidana da galdera bat erantzuten duzula, eta erantzun horrek beste galdera batera eramaten zaituela. Beraz, beti bada zerbait berria ikasteko eta aurkitzeko.

7. Zaila izan al zen neska zientzialari bakarrenetarikoa izatea?

Zientzia munduan emakume asko gaude, tesian emakume gehiago daude gizonezkoak baino eta laborategi batean hasteko garaian, gizonezko gehiago daude emakumezkoak baino. Ez da erraza amatasuna eta lana elkarrekin eramatea eta emakume askok laborategia utzi egin behar izaten dute, laborategiak lan ordu asko sartzea eskatzen du eta ezinezkoa egiten baita horrelakoetan.

8. Nola sentitu zara hasi zinenetik gaur egunera arte?

Oso pozik sentitu naiz asko ikasten dudalako egunero eta ongi pasatzen dut nire lanean. Gainera batzuetan aurkikuntzak egiten ditugu eta horrek esan nahi du, besteek inoiz ikusi ez duten zerbait ikusten dugula. Munduko aurrenak gara zerbait berria ikusten eta oso momentu politak izaten dira horiek.

9. Zein da zure espezialitatea?

Gibeleko minbizia da nire espezialitatea eta ulertu nahi dut zer pasatzen den zelula normal bat tumore bihurtzeko. Hau ongi ulertzen badugu, horri aurre egin diezaiokegu, edo prozesua gelditu dezakegu, edo leheneratu edo soluzio bat aurkitu.

10. Zenbat pertsonak egiten dute lan zure laborategian?

Lau pertsonak egiten dute lan nire laborategian: bi gizonezko eta bi emakumezko daude.



11. Beste lan batean ibili izan al zara noizbait?

Egia esan ez, inoiz ez dut beste lanik egin izan baina ikaslea nintzenean klase partikularrak ematen nituen.

12. Zer esango zenieke zientzialari izan nahi duten-gazteei?

Gustatzen bazaizu segi lanean eta ez du inporta zer lanbide izan, inportantea gustatzen zaizuna bilatzen baduzu, horrela segitzea. Zure lana zure pasioa izatea lortzen baduzu, ez du ematen lanean ari zarenik.

13. Berdintasuna ikusten al duzu zure lanean?

Gaitasunetan bai, emakumeak eta gizonak gaitasun berdinak ditugu menpean, baina emakumeek lana uzten dute haurdunaldian daudenean, zaila delako familia bat sortzea eta lanean ordu asko egotea. Baita ere, beste ikerlari batzuk galdetzen didate zein laborategitan egiten dudan lan eta nik esaten diet nire laborategian egiten dudala lan. Baina berriz galdetzen didate, insititu egiten dute, zein laborategitan egiten dudan lan eta nik esaten diet berriro ere nire laborategian. Ez dute benetan sinesten. Horrek pixka bat haserretzen nau, haiek ez ulertzea laborategi baten jabea emakumezkoa dela. Beharbada, horrek esan nahi duena da, oraindik, arraroa egiten zaiela emakumezko bat laborategi baten jabe dela ikustea. Bestalde, gizon bati zein laborategitan egiten duen lan galdetzen diotenean eta berean erantzuten badu, dena oso ongi ikusten dute eta oso azkarra dela pentsatzen dute. Desberdintasuna zentzu honetan ikusten dut nik. Baina nik badakit zer dakidan, nola egiten dudan lan eta ez diot aparteko garrantzirik ematen. Beraz, aurrea neskak eta mutikoak!

Garazi Loiarte Villar

Jaiotze data: 1995-10-04

Kolore bat: Beltza eta zuria

Jaki bat: Letxuga

Zenbaki bat: 4

Animalia bat: Zakurra eta behia

Uda ala negua: Uda

Zerbait soberan al dago munduan? Gaiztakeria

Eta zerbait faltan? Zintzotasuna eta enpatia

Zerbaitek izutzen al zaitu? Min psikologikoak eta fisikoak

Zerk lasaitzen zaitu? Trikitia jotzeak

Definitu munduaren egoera hitz batean: kaosa



1. Nor da Garazi Loiarte?

Iruñean bizi den goizuetar bat, neska alai, lagunengandak eta laguntzeko prest egoten dena.

2. Nolakoa zinen txikitan?

Lotsatia, ni Donostian jaio nintzen eta 5 urte nituela etorri nintzen Goizueta. Olentzerok Haur Hezkuntzan ekarri zigun etxetxoan zeneke babeslekua.

3. Zer zaletasun zenituen?

Jostailuekin ibiltzea gustatzen zitzaidan. Gero baserrian bizitzarekin, hor geneuzkan animalia haiekin ibiltzen nintzen, nik horixe esango nuke eta pixka bat lagunekin txabolak egiten ibiltzen nintzen...

4. Txikitan gustatzen al zitzaizun zahagia?

Zahagiak beldurra ematen zidan, ni

gogoratzen naiz baserrira mozorroak etortzen zirela, eta niretzat handiak ikusten nituen. Ez nintzen ateratzen etxetik mozorroak joan arte. Guk gure bizilekua etxe bateko lehenengo pisuan genuen eta hantxe egoten nintzen leihotik zahagiari begira. Herrian zahagiak ematen zuen jokoarekin nik ezberdin ikusten nuen zahagi dantza.

5. Zergatik erabaki zenuen zahagia izatea?

Ba ni beti trikitiarekin atera izan naiz, gustatzen zitzaidan zahagiaren papera baina beti ere bultzada bat falta zitzaidan. 2019an atera nintzen lehenengo aldiz, emakumeak lehen aldiz mozorro atera zirela 25. urteurrena ospatu zuten urtean, noizbait zahagi emakumea ere izango zela esaten zen orduan. Ez genekien noiz, baina bagenekien aterako zela. Batzuek pentsatzen zuten

momentu batean emakumea aterako balitz, zahagi tradizionalaren kontra joatea izango zela. Niri kontatu zidaten, eta emakume zahagia ateratzeko aukera komentatu genuen. Hor ohartu ginen oraindik batzuk emakumea zahagi ateratzearen aurka zeudela eta aurka bozkatzeko asmoa zegoela. Nolabaiteko indarra behar genuen, horrek hainbesteko mina eman zidan, non "aurten da urtea" esan nuela. Orduan nire burua aurkeztu nuen eta zozketan atera nintzen.

6. Kontatuko al zenuke nola izan zen zure lehen eguna?

Momentua iritsi arte kriston tentsioa izaten da, ateratzeko gogo, eguraldiak lagunduko duen... Nik Donostian lan egiten nuen, ziztu batean lanean atera eta egun hartan ez nuen bazkaldu. Arropak ez nituen egunera arte

eta ez nekien ezer. Azkenean osabari galtzak eskatu, besteei abarkak eta alkandora falta nuen. Ailegatu nintzeanean arropa guztiak prest nituen, ez nekien zein arduratu zen hartaz, baina dena prest zegoen. Ireki bezain laster, alkandora nire izenarekin eta data-rekin ikusi nuen. Orduan kriston negarrak egin nituen emozioarengatik, bai nik, bai ingurukoek. Ateratakoan denak pozik eta dena oso ondo atera zen.

7. Zenbat kiloko zahagia eramaten zenuen gutxi gorabehera?

Jakin beharko nuke, baina ez dakit, ematen duena baino pisu gutxiago dauka barruan haizez beteta dagoelako. Egia da zahagiak sokak bezala dauzkala eta gero aparte, gerriko gorria, horrekin hain fuerte lotzen da, gehiago da pisua baino gelditzen zaizkizun markak eta ubeldurak; bizkar gutzia geratzen da ubelduz beteta. Oso estu lotzen da, orduan batzuetan askatu beharra ere izaten dugu.

8. Harrera ona izan al zuen emakume batek gizonetzko mundu horretan?

Herri mailan bai, esan dudana bezala, gure artean egon zen tira-bira nahikotxo eta, ba egia esan, urte horretan 41 bat mozturro ginen, eta batzuk ikusten genuen beharrezkoa bai ala bai emakumezko bat egotea; ez zozketa ez ezer egitea. Ez zen aurrera atera proposamena eta azkenean erabaki zen zozketa egitea. Egia da oso gutxik ikusten zutela emakumea desberdintasun egoera batean zegoela. Oraindik ez gara oso kontziente.

9. Denboran atzera eginen zenuke zerbait aldatzeko?

Azkenean, nik uste dut, espazio desberdinetan emakumeen parte-hartzea handitzeko eta berdintasunera iristeko prozesu bat badela ikusten da eta zaila da atzera egin eta gauzak aldatzea. Espazio askotan % 100 gure presentzia bermatzea gure esku ez dagoenez, nik uste dut zaila dela historian denboraren makinan sartu eta atzera joatea emakumea hemen jarri behar



dugu”, hori baino konplikatuagoa dela esango nuke. Nik orain ikusten dut emakume asko gaudela mozturrotan, erdiak baino gehiago esango nuke. Eta galdera bat datorkit burura, “ez al zarete animatzen zahagi izatera?”. Hainbeste izanda bigarren bat izango da ba, nik uste nuen norbait aterako zela baina aurrean ez da inor gehiago animatu.. Hor atzean beldurrak daudela iruditzen zait, “eta ez badut aguanta-tzen lasterka?”... Jendeak zahagi dantz egitea fisikoarekin lotzen du baita ere, baina ni ez naiz urte gutxia horretarako prestatzen ibiltzen, ateratzen zaizun gauza bat besterik ez da.

10. Zuk uste al zenuen emakumezko lehen zahagia izango zirela?

Egia esan ez nuen uste, banituen zenbait emakume identifikatuta, bat baino gehiago aterako zirela uste nuen nire aurretik, baina ez, ez da horrela gertatu.

11. Zure ustez esperientzia ona izan al zen?

Bai, esango nuke nire bizitzan izan dudan esperientziarik hoberenetako bat izan dela.

12. Zein izan zen zure lehenengo zahagikidea?

2019an Eneko izan zen, 2020an ezin izan nuen atera autoko istripu baten-egatik, 2021ean pandemia garaia eta Iruñean ikasten ari nintzelako ezin izan nuen atera. Lehenengo urtean Ibairekin ateratu nintzen eta azkenik, aurrean, Enekorekin ateratu naiz.

13. Zenbat urtez izan zara zahagi?

Hiru urtetan ateratu naiz zahagi, eta mozturro hamalau urterekin hasi nintzen trikitia jotzen. Momentuz 14 urte daramatzat mozturrotan.

14. Berdintasuna lortzen ari garela uste duzu?

Nik uste dut baietz, ikusten den eta esan dudana bezala, Elaiarekin ateratu zen DBHkoekin. Nik ez dut burutan eskola mailan neska bat zahagi ateratzeko prest egon zenik. Nik uste dut aurrerapauso ikaragarriak ematen ari garela eta horixe, nik uste dut baietz.

Pakita Goizueta Ondarrola

Jaiotze data: 1940-04-03

Nolakoa zinen txikitan?

Niri txikitan oso bihurria nintzela esaten zidaten, niri iruditzen zitzaidan ez nintzela, baina haiek baietz esaten zidaten.

Zer zaletasun zenituen?

Mendian ibiltzea gustatzen zitzaidan, animaliekin ibiltzea ere bai, baita arrantzan ere.

Bizimodua erreza al zen zure garai haietan?

Ez, ez zen batere erraza, batzuk oso pobreak ziren baina guk gazta eta ta-loak jaten genituen eta ez genuen goserik edukitzen.

Nolatan hasi zinen kontrabandoan?

Anaiak esanda hasi nintzen kontrabandoan, anaiak esan zidan pakete txikiagoak bazeudela nik ekartzeko modukoak eta niri dirua gustatzen zitzaidan.

Zenbat urterekin hasi zinen?

18 urterekin hasi nintzen.

Kontatuko al zenuke kontrabandoko egun bat nola izaten zen?

Abisua hartzen genuen guk, eta Arantzakoek herrira ekartzen zuten, edo jendea bildu eta guk bagenekien nora joan. Joan Loitzatera eta paketea hartu.

Zer ekartzen zenuten?

Erlojuak, lijak eta puntillak, horrelako gauzak ekartzen genituen.

Nondik ekartzen zenituzten gauzak?

Frantziatik Etxalar aldera pasa eta handik beste batzuk Arantzara pasa. Arantzakoak guri entregatzen ziguten eta guk Berastegira eramaten genituen gauzak.

Zenbat urtetan aritu zinen eta zein zen zure ibilbidea?

Kolore bat: urdina.

Jaki bat: patata tortilla eta Colacao beroa.

Zenbaki bat: 7a

Animalia bat: ardia

Uda ala negua: uda

Zerbait soberan al dago munduan? Gaixotasunak eta gerrak

Eta zerbait faltan? Lana, osasuna eta dirua denentzat

Zerbaitek izutzen al zaitu? Otsoak

Zerk lasaitzen zaitu? Jan eta lo egiteak

Definitu munduaren egoera hitz batean: egoera txarra



2 urte aritu nintzen eta nire ibilbidea Gozainetik edo Loitzaitetik Alduntzingo burura eramán eta han zuloak omen zauden, han gordetzen ziren.

Kontrabandoa gabez egiten zenuela ikusita, nola moldatzen zineten ilunpean menditik ibiltzeko?

Zaila zen ilunpetan mendian ibiltzea, ilargia bazegoen ilargiari begira, baina hori guardia zibilentzat abantaila zen.

Guardia zibilik atzetik izan al ze-nuen inoiz?

Ez, ez nuen guardia zibilik atzetik ibili ni nengoenean behintzat.

Harrera ona izan al zuen emakume batek gizonezko mundu horretan?

Bai, anaiarekin ibiltzen nintzelako.

Denboran atzera eginen zenuke zerbait aldatzeko?

Bai, gaztea izan nahiko nuke, 25 urteko gazte bat baina orain zaharra nago.


Bazegoen beste emakumerik?

Ez, ni bakarrik nintzen emakumea, ez zegoen besterik.

Andres Narbarte "Xalto" (LH5-6)

Jasokundearen eliza, goizuetarron ondare oparoaren adigarri

DBH 1. ETA 2. MAILAKO IKASLEAK



Elizaren planooa.

Hainbat eraikin garrantzitsu dau-
de Goizuetan zehar. Horiek, he-
rria edertu eta erabilera anitz izateaz
gain, Goizuetak aurreko mendeetan
izan zuen garrantzia demografiko eta
ekonomikoa erakusten dute, XV. men-
detik aurrera besteak beste burdinolek
ahalbidetua. Deigarria baita eraikin
hauek behar izan zuten esfortzu eta
kostua. Horien artean Goizuetako Ja-
sokundearen eliza dago eta horri bu-
ruzko informazioa aditu baten hitzeta-
tik testu honetara ekarri dugu.

MENDEETAKO HISTORIA, ZAILTASUNAK ZAILTASUN

Bere eraikuntzak ibilbide luzea izan
du, aldaketa asko jasan izan ditu eta.
Gaur egungo eraikinaren gehiena
1561-1725. urteen bitartean eraiki



Amezuaren organoa.

Egitura gotikoak eta erretaula errenazentistak.



zen, gehienbat herriko boluntarioen eskulanari esker. Hasieran estilo erromanikoko eliza txiki bat zegoen, gero zabalduz joan zena gaur egun duen itxura lortu arte. 37 metroko zabalera eta 18 metroko altuera du, herriko eraikin handienetakoa eta zaharreneetakoa da. Eliza bere dimentsio handiengatik eta katedralaren bilgarriengatik nabarmentzen da. Erretaula nagusia 1762an eraiki zen.

Hasieran, gaur egungo elizaren zati bat zegoen eta urte batzuetara handitu egin zuten. Honen kostuak ordaintzeko dirua amaitu zenean, Mexikoko indiano aberats batek dohaintza bat egin zuen, herriari lanak burutzea ahalbidetuz. Aspaldian, eliza eta erre-karen artean ez zegoen orain dagoen

bidea eta eraikina uretan zegoen sartuta. Elizak Santiago Bideko bidaiariak artatzen zituen garai batez eta hori adierazten duen maskor bat dago elizaren kanpoaldean. Barnean 3 armari ditu eta udalarena izan zela iradokitzen dute. Aurretik beste organo bat egotea posible den arren, gaur egungo organoa Aquilino Amezua organo eraikitzaile ospetsuak eraiki zuten.


Ikus daitekeenez, elizak elementu gotikoak, errenazentistak eta barrokoak ditu. Arte gotikoko eraikinak gero eta garaia eta argitsuago egiten hasi ziren, ojiba arku eta gurutze gangeti esker. Erromanikoan, ordea, iluntasuna zen nagusi. Teknika horiei esker ez zen horma lodirik egin behar.

Eraikin gotikoetako oin planoak era erromanikokoak ez bezalakoak ziren. Eraikinak, beraz, estilo gotiko nabarmena du baina erromanikoaren nahasketa bat da baita ere.

Arkitektura errenazentistan elementu klasikoak erabiltzen ziren, zutabe joniarrak eta frontoiak esaterako. Eskulturak are erreialismo eta adierazkortasun handiagoa eskuratzen hasi ziren eta, barrokoa zabaldu zenean, apaindura natural eta konplexuagokin egiten hasi ziren erretaulak. Elizako erretaulai eta sarrerako apaindurei so eginda, errenazimenduko eta barroko elementuak daude, estatuen erreialismo, adierazkortasun eta apaindura oparoa dela eta.

Goizuetako toki izenak, esku-eskura

NAFARROAKO TOPONIMIA OFIZIALAREN BISOREA



Goizuetako toki-izen bat mapan ikusi nahi duzula? Edo paraje jakin baten izena zein den jakin nahi duzula? Bada, horretan lagunduko dizun tresna daukazu esku-eskura, telefonotik, tabletetik edo ordenagailutik aise kontsultatzeko moduan. Nafarroako Toponimia Ofizialaren Bisoreaz ari gara. Horren bitartez, esan bezala, Goizuetako toki-izen ofizial guztiak erraz ikus ditzakezu mapan kokatuta, edo, bestela, toki-izen jakin bat non dagoen bilatu dezakezu.

Zer da, bada, toponimia bisorea? Interneten dagoen erreminta bat da, eta Nafarroako toponimia ofiziala jasotzen da bertan. Alegia, Nafarroako toki-izenak biltzen dira. Tartean, jakina, Goizuetako toponimia ofizial osoa: auzo, borda, mendi, paraje, erreka... eta abarren izenak.

Mapa hori, gainera, detaile handikoa da, eta modu ezberdinetan ikus daiteke: ohiko mapa gisa, katastro gisa, argazki gisa (garai ezberdinetako argazkiak daude)...

Webgune batean dago bisorea, nahikoa da bilatzaile batean "Nafarroako Toponimia Ofizialaren Bisorea" idaztea eta berehala aurkituko duzu. Webgunean sartuta, pixka bat saltseatuta, berehala ikusiko dugu nola funtzionatzen duen. Hala ere, nahi izanez gero, Euskarabidearen webgunean badago tutorial bat, funtzionamendua azaltzen duena. (<https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/toponimia-ofiziala>).

Goizuetako edozein toki-izen hartu, bisoreak duen bilatzailean sartu, eta klik eginda Goizuetako mapan kokatzen du. Gainera, erabiltzaileei aukera

ematen die toponimoei buruzko informazio zehatzagoa bilatzeko, hala nola toponimoaren ahozko edo idatzizko aldaerak, toponimoari buruzko dokumentazioa edo datu historikoak. Nahikoa da, horretarako, izenaren gainean jarri eta klik egitea.

Azkenik, bestelako jakingarri batzuk ere lor daitezke, hala nola udalerrien edo herrien toponimoen zerrenda edo elementu ezberdinen arabera iragazitako toponimoak. Bisoreak gailu mugikorretan ere funtzionatzen du eta izaera irekia duen proiektua denez, informazio berriak gehituko zaizkio.

Goizuetako toki-izenen inguruko jakin-mina izanez gero, beraz, badakizu: sartu Toponimia Bisorean eta mugitu zaitez gora eta behera, ezker eta eskuin, Goizuetako lurraldean eta toponimian barrena.

Aita alabarekin, eta aita alabaz, bertsotan



Irakurleek ongi dakiten bezala, Goizuetarekin loturaren bat duten bertsoak edo hemengo bertsolariak idatzi edo kantatutakoak argitaratzen ditugu orri hauetan. Gaurkoan Manolo Arozenaren (Sarran, 1949) bi saio eskainiko dizkizuegu.

Iruñeko Gaiarre antzokian ospatu zen 1993ko Nafarroako bertso txapelketaren finala, eta bertan zen Manolorekin batera bere alaba Estitxu Arozena ere. Zozketak horrela erabakita Hamarreko txikiko lanean elkarrekin kantatzea egokitu zitzaaien aita-alabei.

Gaia: Zu Manolo, apezazara, eta Estitxu monagiloari dirua eman eta mezatarako ardo eske bidali duzu. Estitxu monagiloa oso kontent eta alaitzuli da baina diru eta ardorik gabe.

M. Arozena:

Monagilu txikia zuzen nahi dut mintza har zazu sotanatik sakristiko giltza ardo piskat ekarri ta egin eskeintza hainbat maite dugunez guk gure eliza ekarri ardoa eta bete hor kaliza (bis).

€. Arozena:

Agian hau ez nuen nere helburua baina begiratu dut ongi ingurua eta ez nun ikusten inondik burua bi aldiz pentsatu gabe jo diot tragua esku onetan utzi duzu zuk dirua (bis)

M. Arozena:

Ez nun uste txarrikan bazenik bai zera konfidantza ez noa oraindik galtzera elizan sartu zera mozkorren antzera orain entzun ezazu apaizan galdera elizan diruakin mozkortu al zera? (bis)

€. Arozena:

Bi trago egin ditut ta mozkortu naiz bela baina ez zazu pentsa apaiza horrela nik gaur egin dudana normala bezela nere uste honeri aditu bestela elizatik zetorren dena ona zela (bis)

M. Arozena:

Laguntzailen esanez orain hartu dut su erdi baldarka dator gaur hau pausuz pausuz holako ekintzarik ez zazu egin usu nahiz ta apaizak diran gai honetan maixu ekarri ura eta diximula zazu (bis)

€. Arozena:

Maiz pentsatu izan dut ez da naturala baina pentsatzen dut gaur salbatu naizala eta pakea egin dugu berehala eta ez al da hemen gauza bat normala maixuaren esana ikasi dudala (bis)

Alabarekin kanta-
tzeaz gain, alabari
buruz ere kantatu
izan ohi du Manolok
Euskal Herriko pla-
zetan. Esate batera-
ko, 1992an Errente-
riako saio batean gai
hau eman zieten Ira-
zu eta bie:

“Arozena, kon-
turatu zara,
Estitxuk Ira-
zurekin bert-
sotan aritzen
den bakoi-
tzean pozez
txoratz en
itzultzen dela
etxera.”



Manolo:

Nere alaba urte batzutan
zebilen nahiko iluna,
gero bertsotan hor jarri nuan
nik nere maite kuttuna.
Irazu dauka plaza askotan
berak kantuko laguna,
zugandik beti pozez dijoa,
zer da egiten diozuna?

Irazu:

Bertso langintza bion artean
ez da izaten tristia,
askoz hobea ondorengotan
pasatzen dena ikustia,
baina Manolo aitormenik ez,
hobe isilik utzia
edo bestela galduko luke
romantizismo gutzia.

Manolo:

Baina kezkatu aurkitutzen naiz,
aita naiz halabeharrez,
alde batetik poztutzen naiz ni
ikusirik irribarrez.
“zorion dena nondik ote du?”
jakiten ez daukat errez,
gutxieneko esan zaidazu
maitatzen dezun edo ez.

Irazu:

Aspaldi hontan badabilkigu
txit ibilaldi itzela,
esango nuke etorkizuna
nahiko ona datorrela,
ta Arozena nolatan egin
horren galdera txepela,
ez al dakizu arpegitikan
leitzen jakin behar dela.

Manolo:

Leitua dut nik bai arpegia
irribarrez ikusita,
eta jakin dut biharko ere
egin dezutela zita,
bertsolari bat gehio etxean
horrekin ez naiz etsita,
zatoz Lesaka Estitxurekin
zure kuartela utzita.

Irazu:

Hara berrize “zatoz nigana”
aita tonto baten gisan,
nunbait gaztetan ez dezu holako
esperientzi onik izan,
esanez dabil kuartela utzita
etxera bisita nezan,
nunbait ez dio gaurik onenak
nun pasatzen ditun esan.

1991



Goizuetako Xole Etxegia, lehiaketetan kotxeak irabazten espezialista bihurtu zaigu. Kalejira saioan bat irabazi ondoren, Txanaka izan da bigarrena. Hurrengoa, non?



Goizuetarrek maila ederra erakutsi zuten euskal Kantu Txapelketan.

Beste askotan bezala, Esteban Arotzenak Ttipi-ttapa aldizkarian argitaratutako Goizuetako hainbat berri emanen dizkizuegu Xaporen atal honetan. Aurten arrunt atzera joanen gara gainera, 1991. urtera hain zuzen.

Herriko zentral hidroelektrikoaren automatizazio prozesuaren eta horren ondorioz gertatzen ari zen lanpostuen galerez informatzen zuen Arotzenak urte hasierako kronika batean. Bestalde, bertsoa ardatz zuten hainbat ekitaldi antolatu omen zuten eskolan, eta ez nolanhikoak gainera, bertan kantatu baitzuten, besteak beste, Maialen Lujanbiok, Andoni Egañak eta Estitxu Arotzenak.

Martxoan Iñaki Lujanbio pilotaria omendu zuen herriak Cuban ospatutako Munduko Txapelketan urrezko domina eskuratu zuelako. Lujanbio-Balardi eta Eugi-Azkarateren arteko partida jokatu zen ilunabarrean, eta arratsean Joselu Anaiak taldeak dantzaldia eskaini zuen.

Orduan, urtero ospatzen zen Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa, eta oso ohikoa izaten zen goizuetarren parte-hartzea bertan. 1991ko edizioan Dani eta Ainara Narbartek irabazi zuten beren mailan, eta Eneritz Arotzenak eta Amaia Lujanbiok bigarren egin zuten.

Udaberri horretan alde egin zuten Guardia Zibilek herritik; XIII. Kros Herrikoia eta I. Mountain Bikeko ibilaldia antolatu zituen Umore Ona Elkarteak; eta Miel Joxe Lekuona buru zen zerranda aurkeztu zuen Herri Batasunak Udal Hauteskundeetarako.

Jakina denez, bertsolaritzak indar handia zuen orduan herrian eta uholde horretan I. Bertso paper Lehiaketa antolatu zuen Euskara Batzordeak. Sari mamitsuekin gainera, irabazleak, adibidez, 15.000 pezetako saria eskuratuko baitzuen. Egaña, Peñagarikano, Lizaso eta Mañukortarekin bertso jai erraldoia eratu zuen Euskaltegiak hilabete berean: arratsaldean saioa ospatu zen zine aretoan eta ondoren bertso afaria egin zen Elkarteetan.

Beste era bateko berriak aipatuz esan beharra dago Xole Etxegiak bi kotxe irabazi zituela hilabete gutxiren barrenean ETBko beste hainbeste lehiaketatan. Eta orduan hemendik kanpo ere oihartzun handia eduki zuen beste kontu bat: uztailearen 5ean Joxe Mari Bakero ezkondu zen Goizuetan, eta bisitari izan genituen, besteak beste, Koeman, Laudrup, Johan Cruyff eta Txiki Begiristain.

Zortzi eguneko Amabirjin Festak ospatu ziren 1991an. Ekitaldiz ederki hornituak gainera guztiak, Benito Lertxundiren kontzertua tarteko. Udazkenean Gazte Asanblada sortu zen, eta aurkezpen gisa Rock kontzertua antolatu zuten Kanka, Kearrak eta Pikutara taldeekin. Eta bukatzeko esan, eraiki zutenetik eskolako frontoiak bereak zituen arazo larriei aurre egiteko akordioa lortu zuela Udalak Nafarroako Gobernuarekin: konponketa gastuak, 15.200.000 pezeta, Iruñeak ordainduko zituen oso osorik.

Zure hitz kuttuna

Inoiz pentsatu al duzu zein den zure hitz kuttuna? Duen esanahiarengatik, soinuagatik, luzeragatik... Bakoitzak bere arrazoiengatik, herritar batzuei galdetu diegu ea zein den beren euskarazko hitz gustokoena. Hona hemen erantzunak:



Esteban Arotzena

Hitz kuttuna: **FAMILIA**

Zergatia: Nere biziko parte inportante bat delako.



Juan Ramon Lizarraga

Hitz kuttuna: **ARRUNT ONGI**

Zergatia: Bertakoa delako.



Nekane Elizalde

Hitz kuttuna: **APAPARRUTXA**

Zergatia: Goizutan bakarrik saten delako.



Ane Taberna

Hitz kuttuna: **PARRAMURRITXA**


Zergatia: Esanahiarengatik ta daukin soinungatik.



Ibon Elizegi

Hitz kuttuna: **PATU**

Zergatia: Galtzen ai delako.



Ane Apezetxea

Hitz kuttuna: **ITTOTTI**

Zergatia: Fonetikoki politta iduitzen zialakoz ta kapikua (palindromoa?) delakoz.



Naiara Arozena

Hitz kuttuna: **XIRIMIRI**

Zergatia: Soinu politta dulako.



Jabier Lujanbio

Hitz kuttuna: **XAMURRA**

Zergatia: Hitzan soinua ta esanahia berdina delako.

Komertzioetan euskaraz, zergatik ez?

Goizuetan euskara betidanik izan da hizkuntza nagusia, baina komertzioetan ere. Baina egun horrela izaten jarraitzen du? Ama hizkuntza ezberdineko pertsonen arteko elkarrizketa batean zein hizkuntza nagusitu eta erabiltzen dugu?

“Nire hizkuntza euskara da eta berea gaztelania. Nire herrian normaltasunez euskaraz aritzea gustatuko litzaidake baina euskara gutxi dakiten edota ama hizkuntza ez duten pertsonekin gaztelera ateratzen zait”.

Goizuetan dendari eta tabernariekin euskaraz egin daitekeen jakiteko, azken asteotan herriko hainbat komertzioetan ibili gara eta galdera batzuk egin dizkiegu euskara berezkoa ez duten zenbait langileri.



Efrain Centeno
HARAKINA

Galderak:

1. Gai izango zinateke norbaitek zure produktuen izenak euskaraz esan eta ulertzeko?
2. Eta zure produktuen izenak zuk euskaraz esateko? Adibidez?
3. Jendeak hitz egiten dizu edo eskatzen dizu euskaraz?
4. Noizbait bezeroren batek izan du gaztelaniaz eskatzeko zailtasuna?
5. Bezeroaren eta zure arteko komunikazioa errazte aldera, lagunduko lizuke komertzioan produktuen izenekin euskarazko panel bat jartzeak?
6. Euskaraz dakizun hori erabiltzen al duzu (agurra, eskerrak...)? Zergatik?
7. Euskaraz (gehiago) ikasiko zenuke? Edo ikasten ari zara?
8. Baduzu besterik esateko?

1. Batzuk.
2. Hanburgesa, oilasko pikillo, txerri txuleta, txarra (xerra), oilasko, un... un... untxia? (laguntzarekin), vino txuri, beltza...
3. Batzuk. Ez dudana ulertzen galdetzen diet.
4. Ez.
5. Bai. Kaxa euskaraz daukagu eta begiratu dezaket. Badut ohitura begiratzeko.
6. Batzuetan erabiltzen dut. Hemengo hizkuntza da. Batzuk eskertzen dute.
7. Bai, gustatuko litzaidake gehiago ikastea.
8. Lana euskaraz egiteko hainbeste ulertzen dut. Elkarrizketa bat aurrera eramateko ez baina zenbakiak eta produktuen izenak badakizkit. Enrikek horrela ikasi zuen, lanean.



**Josep
Andres
Centeno**
HARAKINA

1. Bai.
2. Guztiak ez baina batzuk bai. Adibidez, txarra (xerra), oilaskoa, hamburgesa oilaskoa, azpizaina, ester (izterra), masaila, gibela, gazta.
3. Hasieran gaztelaniaz gehiago. Baina orain, euskara gehiago ulertzen dugunez, euskaraz.
4. Bai, "muslo" esan beharrean "musculo".
5. Bai, izenekin bai.
6. Bai, kaixo, zer moduz, eskerrik asko. Jendeak ikusi dezan ikasten ari naizela.
7. Bai.
8. Ez.



**Kaliny
Oliveira**
TABERNARIA

1. Ulertu bai, arazorik gabe. Kafeak eta hori...
2. Pintxoa urdaiazpikoa, vino euskaraz da, ezta? Ez, ardoa (berak zuzentzen du), arrautza, hirugiharra eta gazta, xolomoa, rabak, garagardoa...
3. Bai, euskaraz bai.
4. Ez.
5. Bai, lagunduko luke.
6. Bai, egunon. Praktikan jartzeko ikasi dudana.
7. Bai.
8. Pandemia aurretik bi urtez ibili nintzen euskara ikasten. Orain, nire amak ikasi nahi du. Izena eman du ikasteko. Batzuetan nire alaba Mariari esaten diot Alice beste alabari euskaraz hitz egiteko.



**Geymi
Rivera**
TABERNARIA

1. Bai, bai. Oso argi.
2. Ebaki, hutsa, hutsa con txantxa (ttantta), bazkaltzeko, afaria, ura, sagardoa, sagarra (sagarraren mostoa), xerra...
3. Bai. Zerbait ez badut ulertzen gaztelaniaz eskatzeko eskatzen diet. Adibidez, Bilbotik badatoz desberdin hitz egiten dute eta gaztelaniaz egiteko eskatzen diet. Uleritzen dudana euskara Goizuetako euskara da.
4. Bai, Frantziatik datozenen, euskal-frantsesak.
5. Agian bai.
6. Bai, normalean ez dut esaten "si", "bai" esaten dut. Zuen hizkuntza errespetatu behar dut. Beste herrialde batean bazaude hango hizkuntza errespetatu behar duzu.
7. Bai, baina denbora faltagatik ez naiz apuntatu euskara klaseetara. Lan mota hauek denbora asko kentzen dizute.
8. Hitz egin ez dut egiten baina ulertu bai. Euskaraz elkarriketak entzuten ditudanean, batzuk ulertzen ditut. Flor alabarekin ikasi dut asko, batez ere ulermena.

**Mathilde
Lucet**
DENDARIA



1. Normalean bai.
2. Bai. Ardoa, arina (irina), garagardoa, ezta...
3. Gehienak bai. Batzuk gaztelaniaz baina oso gutxi.
4. Gaztelaniaz baino lehenago gestoek bidez eskatzen didate. Saiatzen dira euskaraz egiten, adibideren batekin edo. Moldatzen gara.
5. Bai, lagunduko luke. Etiketa gehienak adibidez gaztelaniaz ditugu. Inñigok egitean euskaraz egiten du baina niretzat zailagoa da fakturatik kopiatu ordez itzulpen lana egitea.
6. Bai. Hemen jendeak euskara erabiltzen du eta nik ere.
7. Bai, gustatuko litzaidake gehiago ikastea. Gramatika gehiago. 4 urtez ibili naiz euskara ikasten. Segitu nahi dut baina denbora falta zait.
8. Ez.

Gurea herri euskalduna da eta, horregatik, merezi du esfortzu bat egitea komertzioen esparruan ere euskararen erabilera normalizatzeko. Erantzunak ikusita, egingo duzu herriko komertzioetan euskaraz? Efrain, Josep Andres, Geymi,

Kaliny eta Mathilde prest daude. Eta zu? Euskaraz bizitzen jarrai dezagun, erabili dezagun euskara.

Goizuetako komertzioetan, eskatu euskaraz!



ZURE TXANDA

JON ZOZAIA



1- Noiztik zabilta honetan?

Rally mundun, lehen aldiz parte hartu... oain dela 9 urte ia, 2014/15 urten bete zen nere ametsa, kopiloto joteko aukera izan nula (21 urtekin). Geroztik ez naiz jetxi!

2- Jantzi berezia behar al da?

Bai, rallytan atera ahal izateko, aurrena, beharrezkoa barreneko arropa ignifugoa da, buzoa gañetik ignifugoa baita ere, kaskoa, hans (lepoa ezin muiitu izateko) eta hau dena FIA-K (Federacion internacional de automovilismo) autorizatutakoa.

3- Kirola bera garestia al da?

Buff... ezin da imaginatu ere in, mundo hontako prezio! Errueda bat suelto 420€ inguru, gasolina berexik 7€ inguru litro bat... irreal! Kar, kar.

4- Babesleak beharrezkoak al dira? Nola moldatzen zara?

Bai, oso beharrezkoak! Edozein launtza minimoa... edozeinentzat eta edozertako ongi heldu da... inskripzioak, erruedak, gasolina edo kotxea prepatu...

Ni, gaur egun arte kopiloto ibili naiz eta lan horretan normalen pilotoa ibiltzen da, azkenen dirua beretzat da ta!

5- Zein da zure lasterketa kuttunena?

Lesakako Rallysprinta dudik gabe! Tramo bezela ikaragarria da! ta ttikitan attak hara eramaten zian! Nere lehenbiziko rallyk han ikusi ttut attakin batera, ordun, kariño berezia dit karrera horrerri!

6- Sari-ikurrei, etxean, txokoa prestatuta al daukazu?

Bai eta ez! Kar, kar, 6 zapela eta bastante kopa battut, azkeneko urtetan irabazik eta denak patuk ta hautsa kentzen... kriston lana! Kar, kar

7- Zure kasuan, gidariari eman behar dizkiozu argibideak. Nola egiten duzu?

Gidari bakotxak bere modua do, nahiz eta gehienak antzekoa izan. Kurba 10tik 1era hartzen dia, 10 adibidez, tope-tope hartzeko kurba, 5 mantsoago eta 1 kruze gaixto bat, ordun kurba bakoitzari zenbaki bat ematten diu, nola hartu jakittek, ordun eta zenbaki altuoa, azkarra go hartu beharrezkoa izango da.

8- Goizuetan bai al da motorren afiziorik?

Baietz esango nuke! Inguruko jendea eta launak, gertu xamar denen, animatzera azaltzen dia! Eta horrek ilusio haundia ematten do!



JON MAKAZAGA

1- Noiztik zabilta honetan?

6 urte nittunetik ibiltzen naiz motoan biño azken 7 edo 8 urte geroztik nabil karrera munduan.

2- Jantzi berezia behar al da?

Bai, ta oso garrantzitsua gainera! Botak, belaunatak, faja (petxuko, kostila eta bizkarrezurreko babes), lepoko, kaskoa, betaurrekok, eskularruk, galtzak eta kamixeta. Hoiiek denak jantzita ere beti izaten da kolpe txarran bat! Kar, kar.

3- Kirola bera garestia al da?

Asteburuan lagun arten ibiltzeko ez nuke esango garestia denik biño karreretako mundu hortan sartzen baza, oso garestia da!

4- Babesleak beharrezkoak al dira? Nola moldatzen zara?

Hemen karrera bat edo beste itteko ez da babeslerik behar, biño Españiko txapelketa osoa itteko, ba...kome-nigarria norbetten launtza. Azkenen, ostiralean atera eta iganden bueltatu... hor gastu asko daude. Ni, ahal den bezela, ba... baditut 4 edo 5 tailer eta denda, pixkot launtzen didatenak. Batek erruedak, bestek piezak, jantziak edo karreretako asistentzia, ahal den bezela! Kar, kar.

5- Zein da zure lasterketa kuttunena?

Ba... lehengo urten egin giñun lehenbiziko aldiz Arano eta Goizuetako mendietako karrera, oso politta izan zen. Eta oso gustokoa dudan beste bat, Oviadokoa, hango mendik hemengon tankera haundia dute eta oso karrera polittak antolatzen dittuzte.

6- Sari-ikurrei, etxean, txokoa prestatuta al daukazu?

Garajen daude! Kakapilatuak denak, hautsak hartzen! Kar, kar.

7- (5-6 urteko) semea ere inguruan dabilkizu, Nola eramaten da hori?

Afizioa! Ez dit erakutsi beharrik izan! Berak hartu do! Baina adin hortan moton ibiltzeko ordu asko eta asko sartu ttu, atta-semek! Hasieran krixton ilusioa niri gehien gustatzen zian kirol bat gustatzeagatik, orain nerbio eta kezka gehiokin ze, gero eta konfiantza gehiokin dabil ta eramaten dun belozidadea ere haundia da ta miña hartzeko, gero ta gehio! Biño hauxe da gustatzen ziuna ta...

8- Goizuetan bai al da motorren afiziorik?

Baaa... gutxi! Moto ugari do herrin biño gero sufritzeria etzite bate gustatzen! Herri ingurun, bueltaka ez baita nekatzen! Kar, kar.